# gaurko filmak

| | | |
|---|---|---|
| **La reina de los diamantes** | ★ | |
| Zuz.: Don Taylor. 94m. AEB. 1988. | | **11:00 La2** |
| **El rifle del forastero** | ★★ | |
| Zuz.: Roy Rowland. 88m. 1957. | | **18:20 ETB2** |
| **Le Pic de Dante** | ★★ | |
| Zuz.: Roger Donaldson. 115m. AEB. 1996. | | **20:55 TF1** |
| **Agnes Browne** | ★★★ | |
| Zuz.: Anjelica Huston. 90m. 1998. | | **20:55 F2** |
| **The Hole** | ★ | |
| Zuz.: Nick Hamm. 100m. EB. 2001. | | **21:00 C+(f)** |
| **Desayuno con diamantes** | ★★★★ | |
| Zuz.: Blake Edwards. 95m. AEB. 1961. | | **22:00 C+(e)** |
| **El gran Lebowski** | ★★★ | |
| Zuz.: Joel Coen. 111m. AEB. 1997. | | **22:15 ETB2** |
| **Face** | ★★ | |
| Zuz.: Antonia Bird. 100m. EB. 1997. | | **22:35 F2** |
| **Sola en la penumbra** | ★ | |
| Zuz.: Michael Apted. 102m. AEB. 1994. | | **23:45 La2** |
| **Une question de vie ou de mort** | ★★ | |
| Zuz.: M. Powell, E. Pressburger. EB. 1946. | | **00:55 Arte** |
| **La Pepa trae cola** | ★ | |
| Zuz.: Carlos Ballesteros. 111m. Esp. 1987. | | **02:30 La2** |
| **La línea del horizonte** | ★★ | |
| Zuz.: Fernando Lopes. 88m. 1993. | | **04:15 A3** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Ane Muñoz



*El gran Lebowski* filmeko irudi bat.

## Coen anaien irudimenaz gozatzeko ikuskizuna

**EL GRAN LEBOWSKI** ★★★ **ETB2 - 22:15**

Zuz.: Joel Coen. Aktoreak.: Jeff Bridges, John Goodman. 111m. 1997.

Lan bitxi eta gozagarri hau aurrekoan oso berandu eman zutenez, ikusterik izan ez zenutenei gomendatu nahi dizuet gaur. *Barton Fink* eta *Fargo* harribitxien egileek sortutako erokeria jostalari eta barregarria da, eta Coen anaien miresleok oso gustura ikusiko duzue. Turturro eta Goodman jatorrak biltzen ditu kameraren parean, *Barton Fink*-en bezala, eta nahiko rol bereziak jokatzen dituzte Jeff Bridges protagonistaren alboan. Abentura basati samarra da, oso berezia, elementu fantastikoz apaindua eta musika egokiz girotua.

### EL RIFLE DEL FORASTERO

★★ ETB2 - 18:20

Zuz.: Roy Rowland. Akt.: Stewart Granger, Rhonda Fleming. 88 min. 1957.

Arratsalde entretenigarria igaroko duzue, ziurrenik, egun pasatuxea dagoen western arin eta txiki honekin. Rhonda Fleming, Stewart Granger eta garai bateko Hollywoodeko beste izar distiratsu batzuk biltzen ditu, Roy Rowland (*5.000 Fingers of Dr.T,* 1953) nekatu samar baten aginduetara. Eszenaratzea zuzena da, baina arrunta, istorioaren planteamendua bera bezala. Grangerrek antzezten duen pistolariak bizimodu arriskutsu eta gogor hori uztea erabakiko du, etxera itzultzeko.

### LE PIC DE DANTE

★★ TF1 - 20:55

Zuz.: Roger Donaldson. Akt.: Pierce Brosnan, Linda Hamilton. 115 min. AEB. 1996.

Pierce Brosnan modako 007 agenteak antzezten du pertsonaia nagusia abenturazko film komertzial garesti baina erdipurdiko honetan. Zientzialari ikertzaile abenturazale baten rola jokatzen du Brosnanek. Ustekabeko erupzio baten ondorioz andregaia galtzen duenean, lanbidea uztea erabakiko du. Lana utzi aurretik, ordea, Dante's Peak izeneko herri txikira bidaliko dute, lurrikara baten beldur baitira. Linda Hamiltonek jokatzen du emakumezko rol garrantzitsuena.

### DESAYUNO CON DIAMANTES

★★★★ C+(e) - 22:00

Zuz.: Blake Edwards. Akt.: Audrey Hepburn, George Peppard. 95 min. AEB. 1961.

Truman Capoteren elebearri arrakastatsuaren egokitzapen gozagarri hau berriz ikustea gomendatuko dizuet Espainiako Canal Pluseko harpidedunei. Blake Edwardsek (*The party,* 1968) pertsonaia arrunt batzuen eguneroko bizimodua aztertzen du, kameraren atzetik. Haien bizitzan sarturik, euren zoriontasuna itxurakeria hutsa dela erakutsiko du. Aktoreak bikain dabiltza; errealizazioa txukuna da, eta Henry Mancini ospetsuaren musika, aproposa.

### FACE

★★ F2 - 22:35

Zuz.: Antonia Bird. Akt.: Robert Carlyle, Ray Winstone. 100 min. EB. 1997.

Antonia Birdek Robert Carlyle (*Full Monty*) modako aktore eskoziarrarekin filmatutako akziozko drama zuzena da, baina ez da oso nabarmena. Politikari sozialista ohi batek, bere alderdiaren porrota onartu ondoren, ekintza susmagarrietan sartzea erabakiko du, eta tarteka lapurretan aritzea.

### LA LINEA DEL HORIZONTE

★★ A3 - 04:15

Zuz.: Fernando Lopes. Ak.: Claude Brasseur, Antonio Valero. 88 min. 1993.

A3k berriro iragarri duen koprodukzio europar berezi honek Spino auzitegi medikuaren istorioa biltzen du, Claude Brasseurrek eta Antonio Valero espresiogabeak antzeztua. Spinok bere bizitzako ezustekorik beldurgarriena jasango du: hildako gazte bati autopsia egiterakoan, gorpua berea dela ohartuko da. Errealitatea eta fantasia nahasirik, sentsazioei eta horien hausnarketari garrantzi handiagoa ematen die akzioari baino; eduki metafisikoa duen testu interesgarri bat da abiapuntua.

## ETB-1

**06:55:** Tik tak circus.
**07:25:** Betizu.
Hartz txiki.
Doraemon, katu kosmikoa...
**09:25:** E-klipse@.
**09:45:** Bidaide.
*Afrikaren bihotzean.*
**10:35:** Sorginen laratza.
**12:15:** Ezinezkoaren mugan.
**12:40:** Azken borrokalariak.
**13:30:** Betizu.
**14:00:** Gaur Egun. Albistegia.
**14:40:** Postdata.
**14:45:** Goenkale.
**15:15:** Gag gag.
**15:45:** Bidaide.
*Ai eta bere umea.*
**16:40:** Travel notes.
**17:10:** Oinak izarretan.
*Gasherbrum, izotz ondoko eguzki.*
**17:40:** E-klipse@.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Tik tak circus.
**18:15:** Betizu.
Katutxakur.
Doraemon, katu kosmikoa.
Betizu zuzenean.
Shin Chan.
Betizu taldea.
**20:28:** Gaur egun. Albistegia.
**21:05:** Euskadi Literatura Sariak 2002.
Hasier Etxeberriak eta Arantxa Iturbek aurkeztua.
**21:50:** Goenkale.
**22:25:** Bexamela.
**00:05:** Postdata.
**00:10:** Esanak esan.
**00:40:** Gag gag.
**01:05:** Bakarrik edo...
**03:05:** E-klipse@.
**03:35:** Esanak esan.
**04:10:** Euskal Herritik.
**04:40:** 1 bitan.
**05:45:** Herri musika sorta.
**05:55:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
Albistegia.
**07:30:** Teledario matinal.
Los desayunos de TVE.
Gonbidatua: Francisco Vazquez.
**10:15:** Nano.
Telesaila.
**11:00:** Por la mañana.
Saber vivir.
Asi son las cosas.
La cocina de Karlos Argiñano.
**14:00:** Informativo Territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazón de otoño.
Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
**15:00:** Telediario 1
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** Geminis.
Telesaila.
**16:40:** Secreto de amor.
Telesaila
**17:50:** Cerca de ti.
Oscar Martinezek aurkeztutako magazin saioa.
**18:50:** El rival mas debil.
Lehiaketa.
**20:00:** Gente.
Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Egualdia.
**22:00:** Nuremberg.
Telesaila.
**02:00:** Telediario 3.
Albistegia.
**02:30:** La banda de Perez.
Telesaila.
**03:30:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**06:50:** Palabra de ley.
**07:25:** Del pais de los vascos.
**07:55:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
Los hombres de Harrelson.
**09:25:** Forum. Gonbidatua: Pello Jauregi.
**10:00:** El punto. Gonbidatua: Maribi Ugarteburu.
**10:30:** Pacific blue.
**12:15:** La cocina de Pedro Subijana.
**12:30:** Doc.
**13:30:** Euskadi directo. (EAEn).
**13:30:** Navarra directo. (Nafarroan).
**13:55:** Date el bote.
**14:58:** Teleberri.
Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
Magazina.
**18:20:** Zinema.
**El rifle del forastero**
Zuz.: Roy Rowland.
Akt.: Stewart Granger, Rhonda Fleming. 1957.
**20:00:** Esta es mi gente.
Magazina.
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:45:** La noche de...
(22:15) **El gran Lebowsky**
Zuz.: Joel Coen.
Akt.: Jeff Bridges, John Goodman. 1997.
**00:50:** First wave: El elegido.
**02:35:** Mike Hammer.
**03:25:** Esta es mi gente.
**04:10:** LQF mojate.
**06:20:** Forum.
**06:50:** El mundo de los hongos.

## A3

**07:00:** Buenos dias, España.
(08:15) Beyblade.
(09:15) El primer cafe.
**10:30:** A plena luz.
Pedro Piqueras eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
**13:55:** Informativos territoriales.
Albistegia.
**14:30:** Los Simpson.
Marrazki bizidunak.
**15:00:** Noticias 1.
Albistegia.
**16:00:** Sabor a ti.
Ana Rosa Quintanak aurkeztutako magazin saioa.
**18:55:** El diario de Patricia.
Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa.
**19:55:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2.
Albistegia
**22:00:** Un paso adelante.
Telesaila.
**23:40:** Abierto al anochecer.
**02:00:** Antena 3 Noticias 3.
Albistegia.
**02:30:** The pretender.
Telesaila.
**03:15:** Televenta.
**04:15:** Zinema.
**La línea del horizonte**
Zuz.: Fernando Lopes.
Akt.: Claude Brasseur, Antonio Valero. 1993.
**06:00:** A3 N24. Canal noticias.

# irratia




**RADIO EUSKADI.** Manuel Huertas PSE-EEko legebiltzarkidea elkarrizketatuko dute goizeko 09:30ean, *Boulevard* irratsaioan. 10:00etan, Toti Martinez de Lezea idazlearekin hitz egingo dute. Solasaldiaren tartean, gazteria eta sexualitatearen inguruan ariko dira bi aditu: Jose Luis Neiro ginekologoa eta Alborabide zentroko Mertxe Gil Alfonso. Unitate ibiltaria Iruñera joango da, Legebiltzarraren egoitza berriko lanak nola doazen azaltzeko. 17:00etan, *La jungla sonora* saioan, trikitixa izango da protagonista, Iñaki Garmendia Laja eta Mikel Alustizaren kontzertuarekin.

**EUSKADI IRRATIA.** Alberto Iñurrategi mendizalea eta Pako Iriondo Mendizaleen Federazioko presidentea izango dira gaurko solasaldian, Euskadi Irratiak bere 20. urteurrena ospatzeko prestatutako saioko azkeneko elkarrizketan, hain zuzen ere. Goizeko 09:00etan eskainiko dute solasaldia. Arratsaldean, *Lauretan Babel* irratsaioan, Julian Iantzi ETBko *Basetxea* saioko aurkezlea elkarrizketatuko dute. Bestalde, Donostian gaur hasiko diren drogamenpekotasunari buruzko jardunaldiez ere ariko dira. Solasaldian, Agustin Unzurrunzaga, Iker Nabaskues eta Jose Mari Agirre mintzatuko dira.